

MOTZAK PILAR IKASTETXEA 2006AN ITXIKO DUTE
KULTURA RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA MARTXOAREN 26AN

BARREn

ASTEKARIA

ARGAZKIA: F. MORQUECHO EL GOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko martxoaren 18a/XII. urtea/481. zkia

PEDRO AZPIAZU

40 urte metalari artea ateratzen

BASKO RENT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIKUA
MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!



ESKAITZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3 - 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU

GARBIKETA
AUTOMATIKO
PUBLIKOA



ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA



HORREZ GAIN:

Olioaren edo filtroen aldaketa
Pneumatikoen azterketa eta aldaketa
Balazten eta esekiduraren azterketa
Mantenimendu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

☎ 902 103 287



Firestone

GOODYEAR



ZPren datozen lau urteak

ZP leloa erabili zuen PSOE alderdiak hauteskundeetan Jose Luis Rodríguez Zapateroren aldeko bozka eskatzeko herritarrei. Pasa da dioxosozko eguna. Atzean geratu da martxoaren 14a. Inor gutxi ahaztuko duen astea izan genuen martxoaren 11n hasitakoa. Eta arrazoiak, merituak, irabazle ala galtzaileak tarteko, kontua da datozen lau urteetan Zapatero jauna izango dela Espainiar Gobernuko presidente. Hautesleak ez ezik, Zapatero bera ere ezustean harrapatu zuten emaitzek. Konbentziturata nago oso gutxi zirela erabateko aldaketa posible zela sinesten zutenak. Eta harridura eta euforiak alde batera lagata, orain dator benetako erronka eta lana. Ze, oso erraza baita besteen lana kritikatzeko. Ahoa bete egiten zaiei politikoei zenbat eta zenbat gauza egin nahi dituzten kontatzen hasten direnean kanpainan. Gizarte orekatu eta sana lortzea hain erraza balitz bezala. Gizakiok berez gara inkonformistak, eta, oraingoan ere, domekako xanpaina kopak alde batera lagata, astelehenean bertan joan zitzaizkion ZPri herritar eta hainbat erakundetako ordezkariak agindutako guztia bete dezan eskatuz. Besteak beste, "alderdiko telebistarekin" amaitzeko hitza eman zuen Zapaterok kanpainan eta Espainiako telebista publikoa goitik behera aldatzeko hainbat neurri hartuko zituela iragarri. Printzipioz, behin behineko zuzendari orokorra izendatuko du eta Ikus-entzunezko Kontseilu Gorena eratzearen aldeko ere agertu da. Tira, horiek guztiak hitzak dira. Aurrerantzean lau urte ditu hitzak ekintza bihurtzeko, eta besteak galdu baino beraiek irabazi dutela erakusteko. Pulpitoaren gainean egoteak ez duela amnesiarik sortzen erakusteko, alegia.

Jasone Osoro



Etorkizun galdua

Goizean jaiki naiz eta presaka gosaldu ondoren, korrika abiatu naiz geltokira, uf! ia ez dut hartu baina ziup!, juxtuan sartu naiz atea itxi baino lehen... gaurkoan ere beste lan egun bat, horrebeste gauza egiteko dauzkat, eta gainera, gauean lagunak datoz etxera, aspaldian ikusi gabe, zer prestatuko diet? Agian, patata tortila edo... baina lehenago eguerdian etxe berri hura ikustera joan behar dut, ea behingoz alkilerreko etxe zaharra uzteko aukera dudana eta lanetik hurbilago egonik, oinez ere joateko aukera, bestela ariketa fisikorik ere ez dut egiten... BANG!

...

Bukatu da. Eta horrela, bat, bi, hiru, lau, hamabost, hogeitau, hirurogeita hamar, ehun, ehun eta berrogeita hamar, ehun eta.... berrehun... eta...

Guztiak etorkizunik gabe. Eta bere inguruko beste hainbat edo gehiagok etorkizun beltza aurretik. Beraientzat bueltarik ez.

Batzuk etorkizunean zuten boterea irrist dariela eskuetatik. Beste batzuk hipotesia errealitate bihurtuz botereari ongi-etorri eginez, liluratuta. Askok, gainean genuen pisua arinduz, arnasa sakonki hartuz, argi izpi batek barruak berotzen gaituela lotsati sentituz. Bai, itxaropentxo, bai, baina zoritxarrez eskarmentu itzelaren ondorioz.

Gizakiok ez al dugu nahikoa historian zehar gertatu diren hainbat txikiziorekin?

Berriz ere horrelakoak bizi behar al ditugu esnatu, begiak ireki, altxatu eta errealitateari aurre egiteko?

Nire errespetu eta dolumin osoa etorkizun galdua dutenei. Nire adorea eta eskakizuna boterea dutenei, etorkizun galdu gehiago gerta ez dadin, ahalegin zintzoak egin ditzaten etorkizun galdua dutenen errespetuz. Guztion errespetuz.

Edurne Bilbao

Kexak	5
motZ MotZ.....	10
kiRolak.....	16
aGenda.....	21

Urruzunoren begi ezkutua

Ametsak amets



Txikia nintzelarik orain baino maizago egiten nuen amets. Adineko izan arte batez ere, eta ondoko hiru urteetan. Izango da agian lanaren egunerokotasunean ametsentzako tarterik ez dagoelako ia. Nolanahi den, txikitan

oso sentimendu sakonak izaten ditugula iruditzen zait, hau da, txikitasuna handi dela. Esan dezadan, bidenabar, esna egiten nuela nik amets. Begiak zabalik nituela gogoak beste norabait eramaten ninduen. Adineko nintzela gatibatu ninduen Laboaren musikak, haren hitzek eta doinuak. Inork gutxi ulertzen zituen susmoa nuen eta nigan halako sentimendua nola eragin zezaketen galdezka torturatzen nintzen. Agian txikia nintzelako ulertzen nituen edo agian amets egiten laguntzen zidatelako ulertu uste nituen. Kontua besterik da, ordea. Jada amets gutxi egiten dut, eta kanta haiek entzutean txikitakoa ekartzen didate gogora. Lehen, astegun nahiz asteburu, maiz egiten nuen amets. Orain, eguneroko lanaldiaren haria eteteko edo, lagun bati sarri esaten diot hau: “asteburuak astegunetatik bereiz behar du”, asteburuetan txikitako ezin ahaztuzko ametsak berreraikitzen saiatzen naizelako...

Ainhua Lendinez

LURRIKARA!

Ez noa Marokon duela gutxi izan zen zoritxarreko lurrikara aipatzera. Eguenean Madrilen izan zen triskantzak ekarri duen (eta ekarriko duen) lurrikarak harritu nau. Harritu eta poztu esan beharko dut, behingoagatik zentzuzko gauzak entzuten eta ikusten hasi bainaiz. Ezker abertzaleak ostegun goizean bertan gaitzetsi zuen Madrileko sarraskia, eta ETA izan balitz berdin-berdin egingo zuela esan zuen. PSE-EEko agintari bati entzun nion ezker abertzalearekin hitz egiteko ordua iritsi dela. Zapaterok eta Ibarretxek luze eta oso giro onean jardun omen dute berbetan. ETAK PSOERI su-etena eskainiko diola entzun diot gaur goizean irratitari. Politiko eta herritar gehientsuenek oportunitate historiko baten atarian gaudela diote. Poza eta baikortasuna izkina guztietan sumatzen da (bueno, Genova kaleko kantoian izan ezik). Eta, akaso, gehien harritu nauena, Frantziako eta Alemaniako presidentek esan dutena izan da: Terrorismoaren atzean dauden arrazoiei heltzeko ordua iritsi dela, alegia. Munduko injustiziak eta miseriak konpondu behar direla terrorismoarekin amaitu gura badugu. Zer pasa da? Madrileko sarraskiak begiak zabaldu al dizkigu? Ikusteko zegoena ikusita, begiak ixteko hobia izan da ba! Tristeia da, baina, zoritxarrez, berrehun eta bat lagunek betirako itxi dituzte begiak beste batzuek beraienak zabal ditzaten. Balioko al du honek guk eta gure ondorengoek etorkizun hobia ikus dezagun? Hala bada, akaso, poztuko dira Madrilen hil diren lagunak, eta Iruñean eta Hernanin hil direnak ere bai.

I.J.

N.A.N. 15.360.627-Z

ASTEKARIA Barren

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhua Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GHEGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhua Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





◆ Emakume batek esan digunez, **tren geltokira joateko arazoak dauzka, eta eskailera mekanikoak beste edozein lekutan baino lehenago, estazio ingurunean egin beharko lituzketela adierazi digu:** “Pertsona nagusiak arazoak ditugu tren estazioraino iristeko, alde guztietatik aldapa eta eskailera baitaude. Urasandin jarri dituzten moduan, estazio inguruan ere eskailera mekanikoen beharra dago, herritar guztiok izaten baitugu noizbait trena hartzera joateko beharra. Aurreko batean, taxia hartu behar izan nuen, ezin nuelako estaziora joan”.

◆ **Basarte auzoko bizilagun batzuek esan digutenez, kaleak garbitzeko makinak, beraien auzoan garbitzen dituzte, eta ingurune guztia zikinduta lagatzen dute:** “Kaleak garbitzeko makinak, Basarte auzora eramaten dituzte garbitzeko, eta gero, ingurune guztia putzuz beteta gelditzen da. Kotxeak pasatzen direnean, oinezko guztiak bustitzen dituzte, eta gainera zikinkeria guztia bertan gelditzen da. Eskertuko genuke, makina hauek beste tokiren batean garbituko balituzte”.



◆ Gizonezko batek azaldu digunez, **ibaiko obrak egin dituztenean sortu den zikinkeria guztia, Meliton eta Netoko zubi artean pilatuta geratu da:** “Hasieran uste genuen obrak iraun bitartean mantenduko zutela zikinkeria ingurune honetan. Kamioi, eskabadora eta langile guztiak aspaldi desagertu ziren ingurune honetatik, baina zikinkeria guztiak bertan jarraitzen du oraindik. Dagokionak lehenbailehen kendu beharko luke”.

◆ **Santa Klara auzoko bizilagun batzuek esan digutenez, obrak direla-eta, auzo guztia hautsez beteta dago:** “Auzo guztia hautsez beteta dago. Ezin dugu balkoira irten, ezta auzoko jarleketan eseri ere. Egunean behin gutxienez, urez busti beharko lukete ingurune guztia”.



“Bistia, pazientzia eta pultsua, baina dibujua da oinarrixa.”

4 hamarkada daramatza xixela eskutik kendu gabe grabatzaile lanetan. Pazientzia eta pultsua ezinbestekoak dira xehetasunez beteriko lanak grabatzeko orduan. Gustavo Dore-ren ilustrazioetatik Goyaren autorretratuetara biltzen ditu bere obrak. 40 urteko jarduera omentzeko Gipuzkoako Komertzio Ganberak Pedro Azpiazu omendu du. Gaur egun, eskuzko eskopeten dekorazioaz arduratzen da Eibarko “Grulla” lantegian. Ikus dezagun zer kontatu digun 53 urteko elgoibartarrak.



Nolatan hasi zinen grabatzaile lanetan?

13 urterekin hasi nintzan. Eskolara joateko gogorik ez neukan eta orduan zera esaten zan: “ez dezu eskolara jun nahi? Ba ofiziuia ikastera!”. Nere aitxan lagun bat, Lucio Etxegiña, grabatzailea zan eta ea grabatzen ikasi nahi naban galdetu zian.

Nik ez nakixan zer zan, aprobau ein naban eta gustau jatan.

Dibujua gustatzen jatan eta grabatzian sekretua dibujua da. Grabatzaile lanetan hasi eta oin arte aritu naiz!

Beti eskopeta artean ibili al zara?

Era askotako grabauak ein ditzut, 26 urterarte eskopetak grabatzen egon nintzan, gero eskopetia laga eta lan industrialian hasi nintzan, bi tornilondokin lanian markak, trokel txikixak eta holako gauzak itxen. Gero, krisixa etorri zan eta dekoraziora dedikau

nintzan batez ere, kuadrak, paisajiak eta eskuduak eitzen. Beranduago kakografiako kursilo baten egon nintzan eta teknika ikasi neban.

Zein da grabatzaile baten lana eskopeta lantegi batean?

Eskopetak adornatzia da gure lana. Loria, animaliren baten irudixa eta antzerakuak irudikatzen ditzugu, baita emakumiak gorrikeri ere bezeruak hala eskatzen badu. Horretarako xixelaz baliatzen gera metalaren gainean grabatzeko.

“Hannover-eko Ernestorentzat grabatu berezi bat ein neban eta ordu askoko lana izan zan”

Zein ezaugarri izan behar ditu grabatzaile batek?

Bistia, pazientzia eta pultsua, baina batez ere dibujua da oinarrixa. Bistia gero eta bero dixen, normala dan bezela, baina antiojuak jantzi edo lupan laguntziakin konpentsatzen da.

Gabratze lanak eskopetaren prezioa asko igotzen al du?

Eskopetan prezioekin konparatuta ez da portzentai handia izaten. Gauza berezi-berezixak badia igotzen da. Adibidez,

batez ere

Hannover-eko Ernestorentzat grabatu berezi bat ein neban eta ordu askoko lana izan zan.

Zein lanetan igaro duzu ordu gehien?

Erronka bat izan zan neretzat Ipar Amerikako Independentzi deklarazioa grabatzia. Kakografian dana alderantziz itxen da gero papelian inprimitzeko. Lan hau ez zan dibujo bat itxia, kakografian ez da jakiten zetan ai zeran ikusi artian. Dibujo batian probak itxen ditzuzu papelian eta nun ilundu bihar dan ikusten dezu, baina testu batian dana desberdina da. Testua idatzita dauan bezela grabau bihar dezu, tatxoi, ihes indako marrak... dana berdin-berdina utzita. Oso lan zaila izaten da. Washinton-eko kongresuko liburutegixan dau nere lanan kopia bat.

Lau hamarkada grabatzaile lanetan aritu eta gero, lan batzuk gehiago maiteko ditzuzu, ezta?

Noski. Quijotian kolekziua ein naban, Gustavo Doré-k Quijoteko frantsez ediziorako 19. gizaldixan ein zitxuan marrazki batzuk ilustratzeko. 120 grabau ein zitxuan egurrian eta nik hortikan 12 marrazki aukerau eta 12 plantxa ein nitxuan. Hauek ere lan askoko txapak dia.

Gero, Goya-n bi autoerreturatu dauzkat Madrileko Kakografia Nazionalian. Goyak autoerreturatu asko ein zitxuan, baina grabatuan bat in zaban, kapritxoz eta bere lanetan famatuenetarikoa da, seguruenez. Azken honen plantxia eskatu zian Kakografia Nazionalak.

Horrenbeste lan desberdin egin ostean, zein da orain zure lana?

Oin eskopetara bueltau naiz berriro. Gauzia asko aldatu da eskopeta munduan. Lehen produkziua eskatzen zan eta oin kalitatia. Beste kontu bat da oraingua, kalitatia exigitzen dizuenian gustora ibiltzen zera lanian. Hala ere, tailerreko lanaz aparte joierixan ere ibiltzen naiz.



Oso gazte gutxi ikasi dute grabatzaile lana, ezta?

Aukera gutxi daude. Horretarako eskola bat ein biharko litzake, kurtsoreglatuekin. Kursiluak ez dira nahikuak, 3 urteko kurtsuak ein bihar dira, horrela ikasten dabenak gero tailerretara oinarri batekin jun daitezzen. Gero, han ezagutza garatuko dabe. Baina urtebeteko kursiluekin base hori hartzerik ezta.

“Ofiziuaz ezagutzeko urte asko bihar dia, nik 40 urte daramazkit eta oindiok gauzak ikasten ditzut”

Etorkizun beltza orduan?

Lana, asko dau, baina jenderik ez lanerako. Urtietan aurrera guaz eta poliki-poliki jendia jubilatzen dixe. Ofiziuaz ezagutzeko urte asko bihar dia, nik 40 urte daramazkit eta oindiok gauzak ikasten ditzut. Eskopetak beti erosten dia. Diru piskat dakanak eskuz indako eskopetia nahi du, ondo indakua, eta arlo hontan beti egongo da merkatua.

Grabatu industrialia kompetentzia al da?

Ez, beste era bateko grabaua dalako. Grabau industrialia beste era bateko bezeroarentzat da, eskopeta merkea nahi dabenentzat.



Eta zein da grabatu industrial eta eskuzkoaren ezberdintasuna?

Handia! Eskuz indakuak beste toke bat dauka, ez dauka zerikusirik. Dirua gastatzen dabanak ez dauka arazorik zeeze gehixo gastatzeko. Gainera, bezero hauek asko ulertzen dabe honetaz.

Egurrian ez duzu sekula tailatu?

Ez dut sekula denborarik izan. Tresna desberdinak erabiltzen dia, baina oinarrixa berdina da. Egurrian formato handixan itxen da, tresnen manejuja ere desberdina da.

Egin dizuten eskakizun arraroena?

Hannover-eko Ernestori 2 eskopeta grabau nizkion, emakumiak gorririk agertzen ziala. Batian, emakumiak zaldixekin eta bestian tigriekin. Oso politxa atera zan.

Eta nondik iristen dira eskakizun hauek?

Ipar-Amerikatik eskopeta asko eskatzen dizkigute, Ingalaterra, Belgika, Alemania, Frantziatik ere.


Gustoko lana duzu orduan?

Bai, dudarik gabe, gustora jutun naiz lanera.



Gustavo Doré-k (1833-1883) Quijoteko frantsez edizioa ilustratzeko marrazkiak oinarritzat hartuz, inprimatzeko 12 plantxa grabatu zituen (goian adibide batzuk). Hilabete inguruko lana eman zion plantxa bakoitzak..

Estatu Batuetako Independentzia deklarazioaren kakografia egin zuen Pedrok. Estatu Batuak Britania Handiko inperiotik banandu zeneko unea jasotzen du testuak. Lan eskerga egin behar izan zuen eskuz idatzitako ingelesezko testua alderantziz grabatu behar baitzuen plantxan. Gaur egun Washington-eko kongresuko liburutegian dago kopia bat.



AGURTZANE Ileapaindegia



Agurtzane
Unamuno

**"Ile edarrak,
ondulatuak eta
bolumena dakenak
gustatzen jataz"**

Txikitan zer izan nahi zenuen handitan?

Pelukera.

Ile motza ala luzea nahiago?

Nerezako luzia, baina pertsonan estilo, aurpegikera, altuera edo janzkera mota kontutan izan bihar dia kasu bakoitzian. Guk gure iritzia ematen dogu eta bezeruek erabaki.

Utziko al zenuke zure ilea Llonguerasen eskuetan?

Ez, ez jata Llonguerasen lan eitzeko modua gustatzen. Fantasiosua eta teknika konkretu gabekua da.

Ileapaintzaile bat?

Londreseko Toni Angain asko gustatzen jata. Oso gogorak izan arren, mozketak eitzeko teknika oso ona daka.

Gustuko orrazkera daraman pertsonaia?

Pertsona konkretu batena izan biharrian, ile edarrak, ondulatuak, ile asko eta bolumena dakenak gustatzen jataz.

Egungo orrazkera "fashion" bat?

Kapak asko eruatzen dia, kapa motzak eta flekilo luzia modan daude; flekilua betile gainean traba egiten eramaten da eta ez gastauta. Trentzatxoak ere berriro eramaten hasi dia, bilduta. Mutileei dagokienez, gandor edo "krestak" modan daude.

Modaz iragandakoa?

Puntak gora jartzia eta zig-zag marra.

Afro ilea ala rastak?

Bixak gustatzen jataz, baina janzkerak ere bat etorri bihar dau eta ausarta izan bida.

Tintatuko al zenuke ilea horiz?

Momentuz ez. Ilea zuritzen hasten jatanian, agian. Beltzarana izanik tonua erabaki biharko nuke, kontraste handiegia beitzantzen jata-eta.

Zer eskatzen du jendeak gehien?

Ikastaro eta abarretan ikasi eta ikusi dozuna, edo modan dauana.

Batzutan, ordea, mozketa edo orrazkera azaldu eta ez dira ausartzen.

Aukeran: burusoilak ala tximaluzeak?

Tximaluziek, lanerako motibo gehixo ematen digute.

Igorak eta hilbeherak ba al dute eraginik ilearen haztean?

Hala esaten dabe eta agian euki dezake, jende askok eitzen dio kasu.


Kapelak modan al daude? Gustuko al dituzu?

Bai, baina hiriburuetan herrixetan baino gehixo eramaten dia. Jendia ez da guztiz ausartzen kapelak jaztera. Nik mordo bat probau ditzut eta bat berakin ere ez naiz ondo ikusten.

Esther Gurrutxaga

ESKERTZA

2004ko martxoaren 9an, 67 urte zituela hil zen
JAVIER URZAINKI SANZen sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Pilar Ikastetxea itxi egingo dute 2006. urtean

Haur Hezkuntzako ikasleak ezingo dira datorren ikasturterako matrikulatu

San Biator Kongregazioak 2006. urtean Pilar Ikastetxea ixtea erabaki du. Joan zen martxoaren 11n izandako batzarrean jakinarazi zuen albistea Gasteiztik etorri zen apaiz batek. Erabaki honen arrazoi modura, azken urteotako matrikulazio kopuruaren beherakada eta ekonomikoki ikastetxea finantzatu ezina aipatu zituen.

Batzarrean bildu ziren gurasoak erabat harrিতuta geratu ziren apaizen erabakia entzun zutenean. Triste eta aldi berean haserre agertu ziren gurasoak, beraien seme-alaben heziketa Pilar Ikastetxearen esku baitzegoen. Guztiek zekiten matrikulazio kopuruak behera egin zuela, eta Eusko Jaurlaritzako



dirulaguntzak jaso ahal izateko gutxiengo ikasle kopurutik urrun zebiltzala, baina ez zuten uste egoera hain larria zenik. Gurasoek itxieraren aurkako kontzentrazioa egin zuten, eta ikasleak ikastetxea zabalik mantentzeko sinadurak

biltzen hasi dira. Ikastetxetik jakinarazi digutenez, beste irtenbideren bat aurkitzen saiatuko dira, baina momentuz erabakia hartuta dago.

Itxi arteko egutegia

Ikastetxearen itxiera 2006. urteko ekainean egingo da. San Biator Kongregazioko apaizak, ordura arteko egutegia azaldu zien batzarrean bildutako gurasoei: lehenengo, haur hezkuntzako gelak itxiko dira, beraz, 2 eta 5 urte bitarteko haurrak ezingo dira datorren

kursorako Pilar Ikastetxean matrikulatu. 2005-06 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 1,2,3 eta 4. mailak desagertuko dira, eta azkenik, 2006-07 ikasturterako, gainontzeko ikasle guztiak beste ikastetxeren baten matrikulatu beharko

Sekula baino jende gehiago bildu zen Madrilgo atentatuaren aurkako kontzentrazioetan

Joan zen martxoaren 11n Madrilen izandako atentatua salatzeke, Juan Jose Ibarretxek kontzentrazio deialdia egin zuen. Lemarik gabe, Madrilen hildakoen alde, arratsaldeko 20:00etan herri bakoitzeko udaletxe aurrean zen zita. Elgoibarren udaltzaingoa ibili zen kalez kale, jendeari kontzentrazioa zegoela jakinarazten, eta herritarrek ez zuten hutsik egin. Sekula baino jende gehiago bildu zen Plaza Handian Madrilgo atentatua salatzeke. Ordu laurdeneko kontzentrazioa izan zen. Isiltasuna izan zen protagonista 15 minutuetan, eta txalo zaparrada handi batekin bukatu zen.



Lan geldialdia

Era berean, eta berriz ere Madrilgo atentatua salatzeke, sindikatuek deituta, lan geldialdia izan zen ostiralean, martxoaren 12an. Eguerdiko 12:00etan, herriko langile asko atera ziren kalera. Komertzioak, tabernak, banketxeak, lantegiak, eta ikastetxeak ere 15 minutuz



gelditu egin ziren. Plaza Handia berriro ere jendez gainezka zegoen. Udaletxeko langileez gain, herritar ugari gerturatu ziren Plaza Handira. Parrokiako kanpaiak 12:15eko kanpaiak jo zituztenean, txalo zaparrada handi batekin amaitu zen ekitaldia, eta bakoitza bere lanera itzuli zen.

Elgoibarko Izarra Kultur elkarteak eta Udalak 2004ko hitzarmena sinatu dute

Elgoibarko Udalak 210.000 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarrari 2004. urteko proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko. Diru kantitate hori Elkarteak 2004rako duen aurrekontu osoaren erdia baino apur bat gutxiago izango da. Proiektu eta programa batzuk bere osotasunean finantzatzen ditu elkarteak, eta beste batzuetan berriz, aurrekontuaren zati bat. Urteroko proiektuez gain, aurtengoan ondorengo berrikuntzak nabarmendu nahi ditu Elgoibarko Izarrak: Elkartearen 40.



urteurrenari eskainitako liburuxka, Elgoibarko berbetiaren ikastaroa eta Haur eta Gazttxoen Plan Integrala. Akaso azken

hau izan daiteke hitzarmeneko punturik garrantzitsuenak. Izan ere, haur eta gazttxoei eskainitako Plan Integrala jarri dute martxan aurten, eta Udalak bere babes osoa eskaini dio proiektuari.

Joan zen asteartean, hilaren 16an sinatu zuten hitzarmena, Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkateak eta Beñat Bilbao Elgoibarko Izarrako presidentek.

Azkenik, Elgoibarko Izarrak bere esker ona azaldu nahi dio Udalari, elkartearentzat ezinbestekoa baita Udalaren laguntza proiektu eta egitasmoak aurrera ateratzeko.

Martxoaren 22an utziko dute Gaztetxea

Udaletxetik jakinarazi dutenez, datorren martxoaren 22an utzi beharko du Gazte Asanbladak Gaztetxea. Joan zen larunbatean, martxoaren 13an egin zuten agur jaialdia, eta jende asko bildu zen bertan. Gazte Asanbladakoek ekitaldi desberdinak antolatu zituzten Gazttxeari agur esateko: eguerdian trikipoteoa egin zuten eta ondoren bazkaria Gazttxean. Arratsaldean Elektrotunarekin kalejira egin zuten, eta gauean kontzertu desberdinak izan ziren Gazttxean. Aurrerantzean, Gazttxea Mupen enpresa zegoen lekuan jartzeko asmoa azaldu du Udalak.



XVIII. mendeko arku bat aurkitu dute Plaza Handiko etxepe baten

Plaza Handiko etxepe baten obrak egiten ari diren langileek XVIII. mendeko arku bat aurkitu dute. Hormak botatzen ari zirela, harri eta hauts artean udaletxe azpian eta pareko eraikinean dauden arkuen antzerako bat aurkitu zuten. Honekin batera, alboetako horma batean harrizko leiho bat aurkitu zuten. Duela urtebete tindategi bat zegoen toki honetan, eta aurrerantzean okindegi bat irekiko dute.

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko lau txeke banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Pili Olertza, Delfina Arriola, Maria Belen Conde eta Maria Gloria Barrutia izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi pertsonentzako bi afari zozketatuko dira.



18 pertsonen hartuko dute parte enpresen sorkuntzarako 'on line' ikastaroa

18 pertsonen hartuko dute parte Debegesak, antolatutako Enpresen Sorkuntzarako On Line ikastaroan. Enpresa ideia bat dutenei zuzenduta dago ikastaroa, eta Debarrenako eskualdean 18 lagunek eman dute izena. Datu aipagarria da, izan ere, Euskal Herriko garapen agentzia ezberdinen bitartez egin diren 116 inskripzioen %15,50a suposatzen baitu.

Enpresen Sorkuntzarako On Line ikastaroa pasa den astean hasi zen eta bere helburua bikoitza da: alde batetik, beraien enpresa ideiak aurrera eramateko gai izan daitezkeen pertsona ekintzaileak hezteko da, eta bestetik, pertsona hauei enpresa bat sortzeko beharrezkoa den ezagutza eskaintzea.

Badirudi etapa berri baten atarian egon gaitezkeela hauteskondeak PSOEk irabazi ostean PSOE AGINTEAN EGONDA, ERRAZAGO IKUSTEN AL DUZU EUSKAL HERRIKO GATAZKARI SOLUZIOREN BAT EMATEA?



UNAI ZURBANO
32 urte, inspektorea

Ez dakit aldatuko den egoera, baina elkarrizketarako bidea irekiko denaren itzaropena daukat. Ez dut uste PPK baino okerrago egingo duenik.

MARIA JESUS GANTXEGI
56 urte, komertziala

Espero dot baietz. PP baino hobiak badia, baina duda haundixak ditzut. Lehen ere urte askuan egon zan PSOE agintian, eta ez zaben ezer ein. Ez dot argi ikusten.



ISIDRO GOROSABEL
69 urte, jubilatua

Zaila da hori jakitzia. Lehen baino hobeto egongo generala uste dot, baina ez dakit. Aurrekuekin baino esperantza gehixo daukat behintzat.

LORE LASPIUR
36 urte, irakaslea

Konponbidia euren esku dao, baina dudia dakat. Lehen ere gobernuan egon zianian ez zeben gatazka hau konpontzeko gauza haundirik ein. Ikusi ein biharko da.



JOSE ANTONIO PRADO
49 urte, matrizegilea

Baietz uste dut, bide onetik goaz. Azkenaldian ezker alderako joera dago estatuan, eta hori positiboa da. Oraindik denbora beharko da, udal hauteskondeak arte itxaron beharko da.

AMAIA IRUSTA
39 urte, irakaslea

Espero dot aldaketia igartzia, eta hoberako izatia. Lehen baino txarro ez dot uste egongo geranik. Ea alderdi guztiekin hitz egiten hasten diren, eta zerbait lortzen den.



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKE-

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
GRUPO RRALMM
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 18 Zabaleta
- 19 Fernandez
- 20 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 21 Ibañez
- 22 Bidasolo
- 23 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 24 Fernandez
- 25 Yudego
- 26 Zabaleta

GAUEZ

- Zabaleta
- Fernandez
- Ibañez
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta

FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
- OKINDEGIA**
19 **barixakua** Idarraga
21 **igandea** Doña Mercedes

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero
Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero
Bilbo 06:00 7:00... 20:00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00 8:10
9:25 9:35
11:10 11:40
11:20 11:50
12:10 12:40
12:20 12:30
13:10 13:20
13:20 13:30
18:20 18:30
19:10 19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10 8:20
9:55 10:05
11:10 11:20
11:40 11:50
12:10 12:20
12:40 12:50
13:10 13:20
18:10 18:20
19:00 19:10

OSASUNA

- Anbulatorioa943 03 26 10
- Planning-a.....943 74 29 50
- Alkoholiko Anonimoak.....943 74 03 85
- D.Y.A (anbulantzia).....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 74 38 64
- Mendaroko Ospitalea.....943 03 28 00
- Odol Emaileak.....943 74 39 36

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....943 74 04 42
- PESA (Eibar).....902 10 12 10
- Taxi geltokia.....943 74 08 98

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....943 74 43 66
- Udal Kirol Patronatua.....943 74 44 15
- Kultura Zerbitzua.....943 74 21 58
- Mendaroko Udala.....943 75 61 00
- Ongizate zerbitzua.....943 74 10 08
- Udaletxea.....943 74 10 50
- Udaltzaingoa.....943 74 13 94

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra.....943 74 16 26
- Kiroldegia.....943 74 44 15
- Kontsumo Bulegoa.....943 74 30 88
- Liburutegia.....943 74 35 25
- Musika Eskola.....943 74 21 45
- Mintxeta.....943 74 43 15
- Parrokia.....943 74 08 42
- Postetxea.....943 74 15 47
- Gaztetxea.....943 74 35 72
- Gazte Informazioa.....943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

- San Lazaro Egoitza.....943 74 02 96
- Zaharren Biltokia.....943 74 05 26
- Eguneko Zentroa.....943 74 45 65

IKASTETXEA

- Haur Eskola.....943 74 21 41
- HHI (EPA).....943 74 08 80
- Herri Eskola.....943 74 08 79
- I.M.H.....943 74 41 32
- Institutua

- Arreiturre.....943 74 80 19
- Ezenarro (Meka).....943 74 80 19
- Ikastola.....943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea.....943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....943 74 41 12
- El Diario Vasco.....943 74 40 73
- El Correo Español.....943 74 10 82
- Zazpiki Irratia.....943 74 34 74
- Egunkaria.....943 30 02 28
- Gara.....943 31 69 99



Batzuentzat ezaguna eta beste batzuentzat ezezaguna. Horrelakoa da artisten mundua. Artista izatera iritea lan gogorra da, baina artisten munduan mantentzea are zailagoa. Eta hasiera guztiak gogorrak izaten dira, baina hasierarik ez badago, mugara iritea ezinezkoa da. Emilia Nogalesek ez dauka oraindik izen artistikorik, bere izenez sinatzen ditu koadroak. Joan zen ostiralean, martxoaren 12an, inauguratu zen berak marraztutako oleo eta akrilikoen erakusketa, eta Kultur Etxean izango da ikusgai martxoaren 28ra arte. Asteleheneetik ostiralera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara izango dira bisita orduak. Artista elgoibartar baten lehen urratsen aurrean gaude. Gure artera ekarri dugu gaurkoan, eta Emiliak berak kontatu digu bere eboluzio artistikoa.

“Senarrak animatuta antolatu dut erakusketa”

EMILIA NOGALES

■ Zer ikusiko dugu zure erakusketan?

39 koadrok osatzen dute erakusketa. Oleo eta akrilikoz eginiko koadroak dira. Arte modernoa eta figuratiboa lantzen ditut batez ere. Pertsonaiak ere marrazten ditut, baina gutxiago.

■ Non aurkitzen duzu margotzeko inspirazioa?

Edozein tokitan. Askotan buruan dauzkadan irudiak marrazten ditut, edo argazki bat atera eta hura egiten saiatzen naiz. Behin alaba jolasean zebilela, manta batekin estali eta hankak bakarrik ikusten zitzaizkion. Argazkia atera eta koadro bat marraztu nuen.

■ Zure lehenengo erakusketa da, ezta?

Bai, hala da. Sekula ez nuen uste nire lanekin erakusketa egingo nuenik. Senarrak animatu ninduen, eta Kultur Etxera hurbildu nintzen, ea erakusketa bat antolatzeko tokirik bazuten galdetzer. Denbora luzez zain egon beharko nuela uste nuen, baina data hauek libre zeuden, eta aurrera egitea erabaki nuen. Oso ilusionatuta, baina aldi berean apur bat urduri nago. Senarrak eta alabak izugarri animatzen naute, eta horrek asko laguntzen dit. Alaba oso pozik dago, baina oso kritikozorrotza da, zerbait gustatzen ez bazaio, berehala esaten dit.

■ Nola hasi zinen koadroak margotzen?

Moda diseinatzailea naiz, eta betidanik gustatu izan zait gauza berriak sortzea. Irudi guztiak akuarelaz margotzen nituen, eta poliki-poliki, nire etxerako koadroak marrazten hasi nintzen. Duela 8 urte inguru oleoa probatu nuen, eta akuarela baino interesgarriagoa iruditu zitzaidan. Orain akriliko lantzen dut, batez ere.

“Eguneroko bizitzatik aldentzen laguntzen dit pinturak”

■ Oleoa eta akriliko, zein desberdintasun dituzte?

Oleoa lodiagoa da, gorputz gehiago dauka. Koadroen fondoak, erliebeak egiteko aproposak dira. Akrilikoak gardenagoa eta argitsuagoa da. Errazago lehortzen da, eta arintasuna ematen du. Egia esanda, nik ere ez ditut oso ondo bereizten. Ez naiz artista bat, gustatzen zaidalako marrazten dut. Ikastaro bat egin nuen, baina nire erara erabiltzen ditut teknikak eta materialak. Nik nahiago dut akriliko. Inpultsoei jarraituz margotzen dut, eta gauzak azkar bukatzea gustatzen zait.

■ Zenbat denbora behar duzu koadro bat margotzeko?

Zaila da galdera hori erantzutea. Ezin diot margoari nahi dudan denbora guztia eskaini. Etxetik kanpo ere lan egiten dut, eta libre daukanean marrazten dut. Koadro batzuk berehala bukatzen dira, baina beste batzuk lan handia ematen dute.

■ Zergatik utzi zenuen diseinua-ren mundua?

Elgoibarren moda diseinatzailea izatea ez da erraza. Ikasketak bukatu ostean, lau urte pasatu nituen Bartzelonan, eta beste lau Bilbon. Sari ugari irabazi nituen. Herrira itzuli nintzanean jostun lanak egiten hasi nintzen, baina horrek ez ninduen betetzen. Nahikoa egin nuela pentsatu nuen, eta beste gauza batzuk egiteari ekin nion.

■ Zer eskaintzen dizu pinturak?

Eguneroko bizitzatik aldentzen laguntzen dit. Ganbaran daukat marrazteko tokia. Errealitatea ahazten dut. Askotan filma bat ikusten ari naizenean, ezin izaten ditut nire kezak ahaztu. Marrazten ari naizenean, ordea, nire koadroan soilik pentsatzen dut.

Haurrei eta gurasoei zuzendutako "Kiribilka programa" martxoaren 26an hasiko da


Elgoibarko familietan euskararen presentzia bultzatzea du helburutzat

Elgoibarko Izarrak, Udalarekin elkarlanean, haurrei eta gurasoei zuzendutako programa berri bat jarriko du martxan datorren martxoaren 26an.

Programa honen helburua, Elgoibarko familietan euskararen presentzia bultzatzea da. Hau lortzeko, familiak aurkitzen diren gune naturaletara joango dira eta euskara haur eta gurasoengana hurbilduko dute modu ludiko, entretenigarri eta erakargarrian.

Horretarako, Plaza Handian 3-8 urteko haurrei eta hauen gurasoei zuzenduriko saioak prestatu dituzte. "Kiribilka programa"n, besteak beste, musika, tailerrak, jolasak, txotxongiloak, ipuinak eta jaiak izango dira ikusteko eta gozatzeko. Eta gainera, "Kiribil" maskota ere bertan izango da denok animatzeko.

"Kiribilka" udaberrian eta udazkenean hainbat ostiraletan izango da, Plaza Handian, arratsaldeko 5:30ean hasita (saioek ordu bate inguruko iraupena izango dute).



DATA K :

UDABERRIAN

Martxo: 26 (Aurkezpen saioa)

Apirila: 2, 16, 30

Maiatza: 14, 28

Ekaina: 11, 18

UDAZKENEAN

Iraila: 10, 24

Urria: 8, 22

Ruper Ordorikaren kantaldia martxoaren 26an, barixakuan, Herriko Antzokian



Elgoibarko Udalaren Euskara Batzardeak 2004ko "Euskal Kantagintza" egitasmoari hasiera ona emateko asmoz, Ruper Ordorikaren kantaldia antolatu du martxoaren 26an Herriko Antzokian.

"Kantuok jartzen ditut" estudioko disko berria esku artean duela datorkigu Oñatiko abeslaria, bere diskografian hamahirugarrena. Hamabi kantu berri dira, eta horietatik hamaikak berak jarritako hitzak dituzte, eta hamabigarrena, berriz, Joseba Sarrionandiaren poema bat da. Azkaraten grabatu duten lan honetan jazzaren auzo mugetatik datozen musikari estatubatuarrek izan ditu lagun kantugile

eta kantari oñatiarrak: Ben Monder gitarran, Kenny Wollesen baterian eta Jonathan Maron baxuan. Gure artean entzuleria fidela du Ordorikak eta kanpoan duen itzalak eman dio euskalduna izatea zein nekeza den konturatzeko aukera. Munduko hiritartasunaz eta euskaldutasunaz mintzo dira, besteak beste, Ruperren abesti berriak.

Ruper Ordorikaren kantuen letra eta musikaz gozatzeko aukera izango dugu, bada, martxoaren 26an, barixakua, gaueko 22.15ean, Herriko Antzokian. Kontzertu honetarako sarrerak (8 euro), aurrez eros daitezke Kultur Etxean, Euskara Zerbitzuan, goizeko 7:30etik 15:00etara.

Elgoibarko kirol instalazioek 46.000 metro karratuko azalera dute

Guztira 52 kirol instalazio daude herrian, frontoiak izanik ugarienak

Udal Kirol Patronatuak emandako datuen arabera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kirol instalazioei buruzko erroldan jasotako datuak aztertu ondoren, esan daiteke Elgoibarren, guztira, 46.000 metro karratuko azalera duten 52 kirol instalazio daudela. Kirol instalazio horien artean ez dira hainbat instalazio osagarri sartzen; esaterako, harmailak, solariuma, aldagelak, komunak edo tabernak.

Eraikuntza datei dagokienez, ikus daiteke Elgoibarren dauden kirol instalazio gehienak (20) 70eko hamarkadan eraiki zirela. 80ko hamarkadan, berriz, 12 instalazio eraiki ziren, 90 hamarkadan 8 besterik ez. Azkenik, XI. Mendean, dagoeneko, bi instalazio berri eraiki dira. 70eko hamarkada



Plaza Handiko frontoia da herriko kirol instalaziorik zaharrena (1751. urtean

baino lehenago, ordea, 10 instalazio eraiki ziren. Instalazio horietatik guztietatik zaharrena Plaza Handiko edo Kalegoengo frontoia da. Frontoi hori 1751 urtean eraiki zuten.

52 instalazio horiek honela sailka ditzakegu:

- Frontoiak: 10
- Kirol anitzetarako pistak: 10
- Tenis pistak: 1
- Igerilekuak: 4
- Atletismoa: 3
- Gelak eta gimnasioak: 13
- Zelaia: 2
- Bestelakoak: 9 (Bolatokiak: 4; Probalekuak: 2; Rokodromoak: 1; Gurpil-oholean ibiltzeko pista: 1; Tiro-lekuak: 1)

Squasharen eta frontoi txikiaren alokerak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du squasha eta frontoi txikia hurrengo hiruhilabetearen alokatzeko zozketa martxoaren 25ean, egunean, arratsaldeko 19:30ean egingo dela Olaizaga kiroldegian.



San Jose Egunean jokatu dira San Lorentzoko pilota txapelketako finalak



Argazkian ia zoko finaletan parte hartu zuten pilotariak sari banaketan.

Sallobente Elkarteak Artazo pilotaria Senaren omenez antolatzen duen esku pilota txapelketaren finalak San Jose Egunean, hilaren 19an, jokatu dira Sallobente-Ermuaraneko frontoian. Guztira 12 bikotek hartu dute parte txapelketan, sei bikotek lehen mailan eta beste sei bikotek bigarren mailan. Finalak

11:30ak inguruan hasiko dira, meza bukatu bezain laster. Bigarren mailako finala jokatu da lehendabizi. Bertan, Angel Loiolak eta Germanek Fernando Loiola eta Osororen aurka jokatu dute. Lehen mailako finalean, berriz, Xabier Loiolak eta Unai Loiolak Eneko Loiola eta Ion Idoetaren aurka jokatu dute.

Aralar inguruan trabesia izango da Morkaikoren hurrengo irteera martxoaren 28an



Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteera Aralar inguruan trabesia izango da martxoaren 28an, domekan. Goizeko 8:00etan aterako da autobusa Plaza Handitik eta Amezketaraino eramango ditu mendizaleak. Amezketako plazatik irten eta ibilbidea honakoa izango da: Amezketak, Minak, Kanbo, Igaratza, Lareo eta Lizarrustin amaitu. Aralarko trabesiarik klasikoenetakoa da, sei ordu inguruan egiteko modukoa. Bidean, aspaldiko meategi zaharrak eta artzainak

bizi diren txabolak ikusteko aukera izango da. Honez gain, kanbo mendia igoko da eta handik Igaratzara doan bidetik abiatu, Lizarrusti alderantz jaitsiz. Ondoren, Lareoko potzu ondotik pasako dira mendizaleak eta Lizarrustin jasoko ditu autobusak. Izena emateko azken eguna martxoaren 25a izango da. Prezioa, 5 euro bazkideek eta 8 euro bazkide ez direnek. Telefonoz (943 74 02 97), e-postaz: morkaiko@hotmail.com edo bertara joanda eman daiteke izena, astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era.

Ikusle eta pilotari ugari 7. Pilota Egunean



Ikusle mordoa inguratu zen pasa den zapatuan Ikastolako frontoian ospatu zen Pilota Eguneko partidak ikustera. Zazpi eta hamalau urte bitarteko 64 pilotarik hartu zuten parte 7. Pilota Egunean.



Neska-mutilek zaletasun handia erakutsi zuten eta tanto eder bat baino gehiago ikusi ahal izan zen.

Guztira 16 partidu jokatu ziren, denak 12 tantora.

EMAITZAK

Futbola

Pedrusko **1** Elgoibar **1** (1. erreg.)
 Elgoibar **9** Axular **0** (Kad.)
 Elgoibar **4** Kostkas **1** (Jub.)
 Urola **0** Haundi **1** (Pref.)
 Aretxabaleta **2** Elgoibar **0** (Inf.)
 Anaitasuna **1** Elgoibar **6** (Aleb.)
 Eibar **3** Elgoibar **2** (Neskak)
 Almen **3** Elgoibar **4** (Neskak F-8)

Areto Futbola

Kenci Elg. **8** Astrabudua **4** (Nazional B)
 Lanbroa **4** Internacional **3** (2. maila)
 Tomas Mingot **6** Magefesa **5** (Jub.)
 Lojantzi **3** Goierri **5** (Jub.)

Eskubaloia

Tecnomeca Elg. **15** Corazonistas **28** (Kad. mt.)
 Pneumax Elg. **22** Corazonistas **20** (Jub. mut.)
 Tecnifuelle Elg. **25** Portugalete **19** (Sen. mut.)
 Tecnomeca Elg. **20** Egia **28** (Kad. mut.)
 Pneumax Elg. **15** Egia **27** (Jub. mut.)
 Kukullaga **28** Pagoaga Elg. **13** (Kad. neska.)
 Kukullaga **15** Cometel Elg. **20** (Jub. neska.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Barixakua, 19
15:30 Elgoibar Mondragon (Neskak)
17:15 Elgoibar Ostadar (Kad.)
Zapatua, 20
16:30 Haundi S. Tomas Lizeoa (Pref.)
18:30 Elgoibar Tolosaldea (1. erreg.)
Domekia, 21
10:30 Elgoibar Zarautz (Inf.)
12:00 Elgoibar Beti Ona (Kad.)

Eskubaloia

Barixakua, 19
10:30 Pagoaga Elg. Aloa Mendi (Kad. neska.)
12:00 Tecnifuelle Elg. Axis-UPV (Sen mut.)
Zapatua, 20
16:00 Pagoaga Elg. Basauri (Kad. neska.)
17:30 Cometel Elg. Basauri (Jub. neska.)

Lana

ESKAERA

- ♦ 17 urteko neska arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **943 74 07 99**
- ♦ Emakumea adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **660 69 53 03**
- ♦ Neska umeak zaintzeko prest. ☎ **669 22 35 27**
- ♦ Emakumea adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **615 73 79 24**
- ♦ Esperientziadun neska adineko pertsonak zaintzeko prest. Goiz edo arratsaldez. ☎ **660 91 94 23**
- ♦ Gizona igeltsero, peoi edo beste edozein lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **680 46 38 86**
- ♦ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 30 56**

ESKAINZA

- ♦ Salento pizzeriarako kamareroa behar da. ☎ **943 74 01 96**
- ♦ Emakume behar da adineko pertsonak zaintzeko. ☎ **610 20 75 24**
- ♦ Umeak zaintzeko pertsona behar da. ☎ **627 96 58 45**
- ♦ 40 urtetik gorako emakumea behar da ume bat eskolara eraman eta ekartzeko. ☎ **943 53 16 16 (18:00etatik aurrera)**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

- ♦ Ford K autoa salgai. 4 urte. 25.000 km. Aire egokitua, leiho igogailu elektrikoak. Oso egoera onean. ☎ **606 44 03 27**
- ♦ Scooter 125cc. motorra salgai. 1050 euro. Oso berria. ☎ **639 180 184**
- ♦ Golf GT TDI, 110 zaldiko autoa salgai. 97 bukaerakoa. Egoera onean, beti garajejan egon da. 9.000 euro. ☎ **652 76 28 59**
- ♦ Bizikleta zikloestatikoa. Kilometroak, kaloriak... neurtzen ditu. ☎ **943 53 13 67**

Etxebizitzak

- ♦ Pisu salgai erdigunean. 80m², berri-tua, altzariekin, 3 logela, dena kanpora begira. ☎ **655 70 70 33**
- ♦ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Eraikuntza berria, Bateles hondartza ondoan. Konpletua. ☎ **680 44 26 68**
- ♦ Apartamentua alokatzen da Saloun. Hondartzako lehen ilaran. Novelty eraikuntza. Konpletua, aire egokitua, igerilekua eta garajea. ☎ **943 81 42 38**
- ♦ Pisu salgai Santa Klaran. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ☎ **943 53 17 43**
- ♦ Arregitorren etxea salgai. Berri-tua, 3 logela, egongela, 2 komun, ganbara eta garajea. Eguzkitsua. ☎ **679 83 04 38**
- ♦ Pisu alokatzen da herriko erdigunean. ☎ **943 20 30 83**
- ♦ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **943 74 34 14 (Lorea)**
- ♦ Pisu salgai Santa Ana kalean. Berri-tua, altzariekin. ☎ **625 70 94 44/ 625 70 94 45)**

Bestelakoak

- ♦ Hilaren 6an, eguerdi aldean urrezko belarritako bat galdu nuen Ubitarte eta Plaza Handia bitartean. Borobila da. ☎ **943 74 14 70**

Lokalak

- ♦ San Bartolome kalean lokal komertziala alokatzen da. Ez du obra beharrik. Prezio onean. ☎ **943 58 40 39 (gavez deitu)**

Partikularrak

- ♦ Batxilergoko bigarren mailako latin klasek jasoko nituzke. ☎ **943 74 45 65/699 70 82 88**
- ♦ Ingeles Filologian Lizantziatuak partikularrak ematen ditu. Maila guztiak, goiz eta arratsaldez. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67**

Garajeak

- ♦ Garaje itxia alokatzen da Pedro Murguruza etorbidean. ☎ **639 41 39 09**







San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



JOSE pintarak

(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk Tel: 943 74 12 55 Mobila: 629 44 23

Agurrak



♦ Zorionak **Enara Calleja Camarari**, hilaren 25ean, urtebete egingo duelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Aitz Egañari**, larunbatean, hilak 20, 6 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki ahizpa Iratiren partez.



♦ Zorionak **Jon**, hilaren 16an, 9 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionik maitakorrenak eta muxutxorik goxoenak San Jose lorerik politenari! Ondo ondo pasau, eta urte askotarako, **Haizea!**

IRAOLA

Arotz lanak


Lurrak
Ateak
Lehioak
Armairu empotratuak

Azibar Iraolagoitia

Arno bide, 7 - Telf.: 636 49 74 85
20850 MENDARO

Malape taberna

Orain astegunetan



© malape

San Frantzisko, 60

BEKAK

Euskarari buruzko ikerketa

Zarauzko Udalak Zarautzen euskarari buruzko ikerketa-lan bat egiteko beka prestatu du. Baldintzak: unibertsitateko goi-mailako edo erdi-mailako titulazioa eta EGA edo titulu baliokide bat izatea. Bekaren iraupena: 12 hilabete. Epea: apirilak 23

Museologia

Arabako Foru Aldundiak museoeekin lotutako ikerketa-proiektuen bitartez, museologiako ikerketa sustatzeko 4 beka eskaintzen ditu. Beka hauek banakakoek zein ikertzaile taldeek jaso ahal izango dituzte. Baldintzak: lizentziatu-titulua izatea. Bekaren iraupena: esleipena jakinarazten denetik 2004-12-31ra arte, zenbatekoa: 6.611 euro. Epea: apirilak 2

Gradu-ondoko ikasketak atzerrian

“la Caixa” fundazioak atzerrian gradu-ondoko ikasketak burutzeko 130 beka antolatu ditu, Txina, Erresuma Batua, Kanada, AEB, Frantzia edota Alemanian master ikasketak, doktoratua edo ikerkuntza lana burutu nahi duten gazteei zuzenduta. Informazio gehiagorako: www.estudios.laCaixa.es

LEHIAKETAK

Olerkia

Errenterriko Udalak VIII Jaurtalkol Olerki Saria antolatu du. Bertan 18 urtetik gorakoek har dezakete parte euskaraz idatzitako jatorrizko eta argitara eman gabeko lanekin. Partehartzaile bakoitzak 50 lerro inguruko lan bakarra aurkeztu ahal izango du. 540 euro saritan. Epea: apirilak 30

BERRIAK

Aldizkari berria

SETEM HEGO HAIZEA gobernuz kanpoko erakundeak “Sakil Kinal” izeneko aldarrikapenerako aldizkari digitala argitaratu du. Bertan hirugarren munduan salagarriak diren albisteak biltzen dira. Jaso nahi izanez gero edo informazio gehiagorako: euskadi@setem.org

Solidarium.net

Euskal Herrian egitasmo eta esperientzia alternatibo eta solidarioen garapena laguntzeko, www.solidarium.net ekimena jaio da. Ekimen hau gizarte justu eta bidezkoagoak eraikitzeko bidean ematen diren ahalegin komunetan ekarpena egiteko asmoz sortu da. Sartu eta parte hartu!

EKINTZAK

Jardunaldi antimilitaristak

Kakitzat koordinakunde antimilitaristak antolatuta, jardunaldi antimilitaristak izango dira Bilbon, martxoaren 22tik 27ra. Antolatutako ekitaldien artean zinema, hitzaldi-etzabaidak, “1989-2004, antimilitarismoa iruditan” erakusketa eta Gatibu, Martires del compás eta Estoparen kontzertua izango dira.

19 BARIKAKUA

**11:30 SAN LORENTZOKO PILOTA
TXAPELKETAREN FINALAK**

Ermuaraneko frontoian
Antolatzaile: Sallobente Elkartea



25 EGUENA

**19:30 SQUASHA ETA FRONTOI
TXIKIA ALOKATZEKO ZOZKETA**

Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua

26 BARIKAKUA

**17:30 "KIRIBILKA
PROGRAMAREN" AURKEZPENA**


Norentzat: 3-8 urteko haurrak eta hauen gurasoak
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea



**22:15 RUPER ORDORIKAREN
KONTZERTUA**

"Kantuok jartzen ditut" diskoaren aurkezpena
Herriko Antzokian

ZINE
kluba



"Good bye Lenin"

Zuzendaria: Wolfgang Becker.

Antzeleak: Daniel Bruhl, Katrin Sass, Florian Lukas.

1989ko urria, Berlingo harresiaren erorketa eta Alemania bien batasuna mami historiko eta politikotzat dituen komedia fina dugu. Egilearen esanetan Alemaniaren historiako atal garrantzitsu bat azaltzea zuen helburua, horretarako istorio bitxi eta hunkigarria eraiki behar zuen eta lan sinesgarria burutuko zuten antzeleak aukeratu. Bestalde, filmean agertzen ez diren arren, elkarrizketa ugari burutu zituzten lan taldekoek oinarri sendoeekin eta koherenteekin lan egiteko.

BIDAIAK

Benidormen egonaldiak

Mendaroko Udaleko Gizarte Zerbitzuak, 2004. urterako Benidormen 8 lagunentzako egonaldiak eskainiko ditu. 2003. urtean sarituak izan ziren pertsonak aurtengo zozketan parte hartzeko aukerarik ez dute izango. Benidormen 4 egonaldi bikoitz zozketatuko dira. Princesa Hotelean 7 gau pentsio osoan, maiatzaren 8tik 15era bitartean. Egonaldiak doanekoak izango dira, eta eskatzaileen hautaketa eta ordezkoen zerrenda ageriko zozketa bitartez egingo da (martxoaren 30ean Udaletxeko Udalbatza aretoan 12:00etan). Eskaria egiteko baldintzak: Mendaron bizi izatea gutxienez azkeneko urtebetean, eskatzaileetako batek 60 urte beteak izatea, gaixotasun larri edo kutsagaririk ez izatea eta bakarrik moldatzeko gai izatea. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 24an amaituko da.

OSPAKIZUNAK

“Jai egunean eskulanean” jaialdia

Datorren ostiralean, martxoaren 19an, Mendaroko In Leikeko begirale taldeak antolaturik "Jai egunean eskulanean" jaialdia izango da Goñati pilotalekuan. Bertan eskulan, tailer eta Mendaroko haur guztientzat txoko ezberdinak izango dira arratsalde entretenigarri bat pasa dezaten. Jaialdia arratsaldeko 16:30etik 18:30ak arte izango da eta bertara nahi duten haur guztiak azal daitezke.

IKASTAROAK

Barreterapia

Barreterapiaren 3. jardunaldia martxoaren 21ean, domekan, izango da Idotorbeko Aubixa baserrian. Udaberria aldaketen garaia da eta gorputzak igarri egiten du. Hau dela-eta, barreterapia saio batzuek animua eta indarra berreskuratzen lagun dezakete. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara izango dira saioak.

zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

“In this world” (Z.K.)

18, eguena: 22:15

“La Casa”

19, barixakua: 19:30-22:15

20, zapatua: 19:30-22:15

21, domekia: 19:30-22:15

22, astelehena: 22:15

“Sorgin bat etxean”

21, domekia: 16:30

“Good bye Lenin” (Z.K.)

25, osteguna: 22:15

EIBAR, Unzaga

“Gothika”

19, barixakua: 19:30-22:15

20, zapatua: 17:00-19:30-22:30

21, domekia: 17:00-19:30-22:30

22, astelehena: 19:30-22:15

23, martitzena: 19:30-22:15

24, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

“Cuando menos te lo esperas”

19, barixakua: 19:30-22:15

20, zapatua: 17:00-19:30-22:15

21, domekia: 17:00-19:30-22:15

22, astelehena: 19:30-22:15

23, martitzena: 19:30

24, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien

aldaketen erantzukizunik.



“La casa”

Zuzendaria: Mike Figgis.

Antzezleak: Stephen Doeff, Dennis Quaid, Sharon Stone.

Senar emazte batek (Sharon Stone eta Dennis Quaid) New York hiri erraldoia atzean laga eta hiritik kanpo dagoen etxe zahar batera bizitzera joatea erabakiko du. Zaharkituta eta zeharo txikituta dago etxea, baina jabe berriek behinola izan zen jauregi ederra berreskuratu nahi dute. Etxearen aurreko jabea, ordea, ez dago batere gustura jabe berrien asmoekin eta ez die arrotzei nahi dutena egiten utziko.

ZINEA




A

ste honetako erretratu zaharra Gure Bide Elkarteko artxibotik ekarri digu bertako bazkide batek. 1984. urteko San Bartolome jaietan ateratako argazkia da. Egun honetan, arroz esne eta marmitako lehiaketa egin zen Plaza Handian. Eguraldi ederra egin zuen, eta lehiaketa ederra izan zen. Jende askok hartu zuen parte. Argazkian ageri den sukaldari bikotea, Txomin Loiola eta Jose Mari Bastida Gure Bide Elkarteko bazkideek osatzen dute. Sukaldaritzarako zeukaten abilezia erakutsi zuten egun hartan, izan ere, arroz esne lehiaketa irabazi egin zuten, eta marmitako lehiaketan bigarren postuan sailkatu ziren. Argazkian ageri den emakumea, **Ana Mari Loiola** garai hartako zinegotzia da, eta arkupeetatik sekulako interesarekin begira ari den gizona, **Jesus Mari Etxeberria** da.

ESKERTZA

2004ko martxoaren 11n, 73 urte zituela hil zen
SABIN ALBERDI OSOROren emazteak, seme-alabek,
bilobak eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



kantuok jartzen ditut **rupe ordorika**



Martxoaren 26an,
ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian

Sarrerak
aurrez salgai
Kultur Etxean
(Euskara Sailean)
goizez



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko
Jaurlaritza

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

GREMIOEN GIDA

AROTZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
% 943 74 31 16

ETXEKIT

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
% 943 74 43 47

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
% 943 74 32 38

IRAOLA

Arotz lanak
Arno bide, 7 (MENDARO)
% 636 49 74 85

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilicn 2-2. pabilioia 3. zerb.
% 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
% 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
% 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
% 943 74 03 96

ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

ANGEL

Santa Ana, 5
% 943 74 17 61
% 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
% 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
% 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
% 943 75 50 62
% 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
% 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitate, 5
% 943 74 07 89
% 608 14 30 40

PINTURAK

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
% 943 74 15 52
% 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
% 943 74 04 40
% 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
% 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
% 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
% 943 74 09 02
% 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
% 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
% 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
% 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
% 943 74 29 87
% 679 19 77 47

E. ARANDIA

Urasandi, 17
% 605 70 52 04

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabilioia
% 943 74 30 94